



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA

## Sesiones de órganos de gobierno colegiados Acuerdo de Pleno

### *Kide anitzeko gobernu-organoen bilerak Udalbatzarraren erabakia*

AYT/PLE/13/2017

ORG111150

Código de validación/*Balidazio kodea*  
2E3X5F5Z4R0F470H0W9V



*Honako hau egin da aditzera emateko Udalbatzaren Osoko Bilkurak, 2017ko azaroaren 28an egindako ordinaria bileran, korporazio-kideen legezko kopuruaren aho batez, besteak beste, jarraian idatzitako erabakia hartu zuela:*

Gizarte Zerbitzuen Legearen 27.3 artikulua adierazten duenez, *Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Mapan jasotako Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren ezarpena aintzat hartuko da lehen eta bigarren mailako arreta-zerbitzuak emateko eta betetzeko*. Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Mapa eta Zorroari buruzko Dekretua dira udaletako gizarte-zerbitzuak ezartzeko funtsezko elementuak.

*40. artikuluan Gizarte Zerbitzuen Legeak Eusko Jaurlaritzari esleitzen dio "Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-zerbitzuen plangintza orokorra egiteko eskumena...". Artikulu horrek, gainera, Eusko Jaurlaritzari esleitzen dio "Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema koordinatzeko ardura, helburu honekin: Euskadiko lurralde osoan prestazio eta zerbitzuen garapen orekatua (prestazio eta zerbitzu horiek lortzeko aukeretan homogeneotasuna bermatuko duena).*

*41. artikulua foru-aldundiei esleitzen die, beraien eskumenekoak diren zerbitzuak planifikatu eta hornitzeko eskumenaz gain, "hurbiltasun geografikoaren printzipioari eta baliabideen erabilera eraginkorraren printzipioari jarraikiz gizarte-zerbitzuak*

Se extiende para hacer constar que, por el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria de fecha 28 de noviembre de 2017, por mayoría unanimitad del número legal de miembros de la Corporación, entre otros, se adoptó el acuerdo que a continuación se transcribe:

Visto lo dispuesto en el artículo 27.3 de la Ley de Servicios Sociales señala que *la provisión y prestación de los servicios de atención primaria y secundaria se garantizará atendiendo al despliegue del Sistema Vasco de Servicios Sociales previsto en el Mapa de Servicios Sociales de la Comunidad Autónoma del País Vasco*. El Mapa de servicios Sociales de la Comunidad Autónoma de Euskadi constituye, junto al Decreto de Cartera, los elementos sustanciales del despliegue de los servicios sociales municipales.

Visto lo establecido en el artículo 40, la Ley de Servicios Sociales que atribuye al Gobierno Vasco la competencia sobre *"la planificación general de los servicios sociales en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco,.."*. Este mismo artículo atribuye, además, al Gobierno Vasco *"la coordinación general del Sistema Vasco de Servicios Sociales con el fin de garantizar, en todo el territorio del País Vasco, un desarrollo equilibrado de las prestaciones y servicios que garantiza la homogeneidad en las oportunidades de acceso a los mismos*.

Visto lo dispuesto en el artículo 41 que atribuye a las diputaciones forales, además de la competencia respecto a la planificación y la provisión de los servicios de su competencia, competencias de *"promoción y fomento de la constitución de*

emateko, mankomunitateen edo beste udal-  
elkarte batzuen eraketa sustatu eta  
bultzatzeko eskumena”.

*Gizarte Zerbitzuen Mapak udalei eta  
aldundiei esleitzen die beraien eskumeneko  
zerbitzuak planifikatzeko ardura, Mapan  
bertan adierazitako irizpideei jarraikiz.*

*EAEko Gizarte Zerbitzuen Legea,  
Gizarte Zerbitzuen Zorroari buruzko  
Dekretua eta Gizarte Zerbitzuen Mapa  
betez, Bizkaiko ERAKUNDE ARTEKO  
MAHAIAK Bizkaiko Lurralde Historikoko  
Gizarte Zerbitzuen Mapa onartu zuen  
2016ko ekainaren 21ean, eta zerbitzuen  
zonakatzea ezartzen da bertan. Berori 7  
udal-ordezkarik eta 7 foru-ordezkarik  
osatzen duten mahai paritario bat da, eta  
Bizkaiko Gizarte Zerbitzuen Euskal  
Sistemaren hedapenaren jarraipena egitea  
du helburu.*

*Zonakatze horretan ezartzen denez  
Ermuko eta Mallabiko udalerriek Gizarte  
Zerbitzuen Eremua eratuko dute. Ondorioz,  
Ermuko Udalak eta Mallabiko Udalak,  
bakoitzak bere aldetik, Oinarrizko Eremuari  
esleitutako gizarte-zerbitzuak emango  
dituzte eta, elkarrekin, Eremuko mugapeari  
esleitutako gizarte-zerbitzuak nola eman  
erabakiko dute.*

*Lurralde-mugape bakoitzari esleitutako  
zerbitzuak ondorengo koadroan jasotakoak  
dira:*

*mancomunidades o de otras agrupaciones  
municipales para la prestación de servicios  
sociales de acuerdo con el principio de  
proximidad geográfica y de eficiencia en la  
utilización de los recursos”.*

El Mapa de servicios sociales atribuye a  
las diputaciones y a los ayuntamientos la  
responsabilidad de planificar los servicios de  
su competencia, de acuerdo a los criterios  
señalados en el propio Mapa.

En cumplimiento de la Ley de SS  
sociales, del Decreto de Cartera y del Mapa  
de Servicios Sociales de la Comunidad  
Autónoma de Euskadi, la MESA  
INTERINSTITUCIONAL de Servicios  
Sociales de Bizkaia (Mesa paritaria  
compuesta por 7 representantes municipales  
y 7 representantes forales, cuyo objeto es el  
seguimiento del despliegue del Sistema  
Vasco de Servicios Sociales en Bizkaia)  
aprueba el 21 de junio de 2016 el Mapa de  
Servicios Sociales del territorio Histórico de  
Bizkaia, en el que se establece la  
zonificación de los servicios.

En dicha zonificación, se establece  
que los municipios de Ermua y Mallabia  
constituirán un Área de Servicios Sociales y,  
en consecuencia, el Ayuntamiento de Ermua  
y el Ayuntamiento de Mallabia prestarán,  
cada uno de ellos por separado, los  
Servicios Sociales atribuidos a la  
demarcación de Zona Básica y, de manera  
agrupada, acordarán los términos de la  
prestación de los Servicios Sociales  
asignados a la demarcación Área.

Los servicios asignados a cada  
demarcación territorial, son los que se  
recogen en el cuadro siguiente:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA

Sesiones de órganos de gobierno colegiados  
Acuerdo de Pleno

*Kide anitzeko gobernu-organoen bilerak*  
*Udalbatzarraren erabakia*

AYT/PLE/13/2017

ORG111150

Código de validación/*Balidazio kodea*  
2E3X5F5Z4R0F470H0W9V



Demarcación	Competencia MUNICIPAL
ZONA BÁSICA	1.1. Servicio de información, valoración, diagnóstico y orientación.
	1.2. Servicio de Ayuda a Domicilio.
	1.3. Servicio de intervención socioeducativa y psicosocial.
	1.4. Servicio de apoyo a personas cuidadoras.
ÁREA	1.7.1. Servicio de atención diurna para personas mayores
	1.9.1. Piso de acogida
	1.9.3. Apartamentos tutelados (personas mayores)
	1.9.4. Vivienda comunitaria (personas mayores)

Mugapea	UDALAREN eskuduntza
OINARRIZKO EREMUA	1.1. Informazioko, balioespeneko, diagnostikoko eta orientazioko zerbitzua
	1.2. Etxeko Laguntza Zerbitzua
	1.3. Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua
	1.4. Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua
AREA	1.7.1. Adinekoentzako eguneko arreta-zerbitzua
	1.9.1. Abegi-etxea
	1.9.3. Tutoretzapeko apartamentuak (adinekoentzat)
	1.9.4. Etxebizitza komunitarioa (adinekoentzat)

*Hori horrela, Udal Idazkariak eginiko txosten juridikoari jarraituz, eta*

Visto el informe jurídico emitido por el Secretario del Ayuntamiento.

*Udalbatzarrari proposatzen zaio, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 22.1 f) artikuluan ezarritakoari jarraituz, ondoko ERABAKIA hartzea:*

Se propone al Pleno del Ayuntamiento, en base a lo establecido en el Art. 22 1 f) de la Ley 7/85 de Bases de Régimen Local, la adopción del siguiente **ACUERDO**:

**LEHENENGO.-** *Eremuko lurralde-mugapeari dagozkion gizarte-zerbitzuak emateko Ermuko eta Mallabiko udalerrien arteko harremanak arautzen dituen hitzarmenaren testua, ondoko edukiaren arabera, onestea:*

**PRIMERO.-** Aprobar el texto del convenio regulador de las relaciones entre el municipio de Ermua y el municipio de Mallabia para la prestación de los Servicios Sociales de Base correspondiente a la Demarcación Territorial de Área, de acuerdo con el siguiente contenido:

## AITZINSOLASA

### 1. Esparru orokorra

*Gizarte Zerbitzuen Legearen 27.3 artikulua adierazten duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Mapan jasotako Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren ezarpena aintzat hartuko da lehen eta bigarren mailako arreta-zerbitzuak emateko eta betetzeko (mapa hori Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoak onartu zuen). Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Mapa eta Zorroari buruzko Dekretua dira udaletako gizarte-zerbitzuak ezartzeko funtsezko elementuak.*

*Lurralde-antolamenduari eta gutxieneko arreta-mailen ezarpenari dagokionez, honako esparru hau ezartzen du Mapak, legea garatuz:*

**Eskubide subjektiboa.** *Euskal administrazioek prestazioak eta zerbitzuak baliatzeko aukera bermatu beharko dute 2016ko abenduaren 25etik aurrera, eskubide subjektibo gisa.*

**Gutxieneko estaldurak.** *Babes-maila homogeenak sustatu behar dira, eta horrek esan nahi du "antzeko arreta-mailetara (estaldurara) jo behar dela, baina ez berdin-berdinetara, zeren eta gizarte-zerbitzuen premian eta eskaeran eragiten duten faktore demografikoek, sozialek... (zahartzea, migrazio-saldoa, krisiaren inpaktu soziala, babes formalaren eta informalaren arteko oreka, guneko bakoitzean alde aurretik dagoen arreta-sarearen ezaugarriak...) joera komunak baitituzte Euskadi osoan, baina baita aldeak ere,*

## PREÁMBULO

### 1. Marco general.

El artículo 27.3 de la Ley de Servicios Sociales señala que *la provisión y prestación de los servicios de atención primaria y secundaria se garantizará atendiendo al despliegue del Sistema Vasco de Servicios Sociales previsto en el Mapa de Servicios Sociales de la Comunidad Autónoma del País Vasco*, aprobado por el Órgano Interinstitucional de Servicios Sociales. El Mapa de servicios Sociales de la Comunidad Autónoma de Euskadi constituye, junto al Decreto de Cartera, los elementos sustanciales del despliegue de los servicios sociales municipales.

En lo que se refiere a la ordenación territorial y el establecimiento de niveles mínimos de atención, el marco que establece el Mapa, en desarrollo de la Ley, es el siguiente:

**Derecho subjetivo.** Las administraciones vascas deberán garantizar a partir del 25 de diciembre de 2016 el acceso a las diferentes prestaciones y servicios como un derecho subjetivo.

**Coberturas mínimas.** Promover niveles de protección homogéneos que implica *"avanzar hacia niveles de atención (cobertura) similares aunque no idénticos, ya que los factores (demográficos, sociales...) que influyen en la necesidad y demanda de servicios sociales (envejecimiento, saldo migratorio, impacto social de la crisis, equilibrio entre el apoyo formal e informal, características de la red de atención pre-existente en cada zona...)* presentan tendencias comunes en el conjunto de la Comunidad Autónoma de Euskadi pero



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA

## Sesiones de órganos de gobierno colegiados Acuerdo de Pleno

### Kide anitzeko gobernu-organoen bilerak Udalbatzarraren erabakia

AYT/PLE/13/2017

ORG111150

Código de validación/*Balidazio kodea*  
2E3X5F5Z4R0F470H0W9V



lurralde historikoen eta herrien artean”.

**Lurralde-antolamendua.** Gizarte Zerbitzuen Legean ezarritako hurbiltasunaren eta deszentralizatorik handienaren printzipioei jarraikiz, Maparen helburua da lurraldean ezartzen diren zentroak nahikoak izatea, eremu batean zentro-gabeziarik edo estaldura urriarik izan ez dadin (adibidez, zerbitzu bat ematerik ez izatea edota “zerbitzuak lurraldean ezartzeko irizpiderik egokienei” jarraikiz hurbiltasun egokiarekin ematerik ez izatea). Horretarako, zerbitzu edo zentro bakoitzari hurbiltasun-maila jakin bat ematen zaio (zerbitzu zentralizatuak eta hurbiltasun txiki, ertain, handi edo oso handiko zerbitzuak), eta hurbiltasun-maila horietako bakoitzari mugaketa geografiko bat ematen zaio (lurralde historikoa edo Euskal Autonomia Erkidegoa —zerbitzu zentralizatuaren kasuan—, sektorea, eskualdea, eremua, udalerria edo udalerrien elkartzea).

**Memoria ekonomikoa eta finantzaketa.** Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan bilduta dagoen eta Mapa Autonomikoaren ondoriozkoa den Memoria Ekonomikoa, sistema unibertsalizatzeko unean erakunde-maila bakoitzerako aurreikusitako gastu publikoa kalkulatzeko gain, bi xedapen interesgarri biltzen ditu. Alde batetik, Mapak abiapuntutzat duen oinarria da “2017. urtetik aurrera administrazio bakoitzari bere eskumeneko zerbitzu eta prestazioak edo laguntza ekonomikoak finantzatzeko erantzukizuna esleitzea, legean xedatzen den eskumen-araubideari jarraikiz, finantzaketa pribaturik eta beste euskal administrazio publiko batzuetan gizarte-zerbitzuen arloko erantzukizuna duten

*también diferencias por Territorios Históricos e incluso por municipios”.*

**Ordenación territorial.** De acuerdo con los criterios de proximidad y máxima descentralización establecidos en la Ley de Servicios Sociales, el Mapa busca promover que el despliegue de los centros en el territorio sea suficiente, sin que existan carencias de centros o coberturas insuficientes en una zona, que impliquen que un servicio no se pueda prestar o que no se pueda prestar con la proximidad adecuada de acuerdo con los “criterios considerados más idóneos para implantar los servicios en el territorio”. Para ello, se atribuye a cada servicio o centro un grado determinado de proximidad (servicios centralizados y servicios de proximidad baja, media, alta o muy alta), atribuyendo a cada uno de estos niveles de proximidad una delimitación geográfica concreta (Territorio Histórico o Comunidad Autónoma de Euskadi para los servicios centralizados y sector, comarca, área y municipio o agrupación de municipios).

**Memoria económica y financiación.** Además de calcular el gasto público estimado para cada nivel institucional en el momento de la universalización del sistema, la Memoria Económica contenida en el Plan Estratégico de Servicios Sociales, que se deriva del Mapa Autonomico, contiene dos disposiciones de interés: por una parte, el Mapa parte de la base de “**atribuir a cada administración la responsabilidad de financiar, a partir de 2017, los servicios y prestaciones o ayudas económicas de cuya provisión es competente conforme al régimen competencial que establece la ley, sin contar con financiación privada ni procedente de departamentos con responsabilidad en materia de servicios sociales de otras**

sailetatik datorren finantzaketarik gabe”. Bestetik, Mapak aurreikusten duenez, “Finantza Publikoen Euskal Kontseiluaren erabaki bidez eta Zorroari buruzko Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian horretarako aurreikusitakoari jarraikiz, **2015/12/31 baino lehen GZESa hedatzeko finantza-lankidetzarako formula bat (funts bat) eratuko da, bereziki eredu komunitarioa eta lehen mailako arreta garatzen laguntzeko”.**

Koordinazio eta plangintza bateratuak udalaren *gizarte-zerbitzuen funtzionamendurako duen garrantzia kontuan hartuta, ezinbestekoa da aipatzea, Legearen xedapenek eta Gizarte Zerbitzuen Mapak diotena, gizarte-zerbitzuen esparruko koordinazio-ibilbideen eta zerbitzuak modu partekatuan kudeatu eta erkidetzeko formulak sustatzearen alorretan. Ildo horretan, Gizarte Zerbitzuen Legeak xedapen hauek ezarri zituen:*

- *40. artikuluan, Legeak Eusko Jaurlaritzari esleitzen dio “Euskal Autonomia Erkidegoan gizarte-zerbitzuen plangintza orokorra egiteko eskumena, bai Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren esparruan, bai dagokionean lantzen diren plan sektorial eta berezien esparruan, hain zuzen ere lehentasunak zehazteko eta lege honetan araututako eskubideak Autonomia Erkidego osoan eraginkortasunez erabiltzeko beharrezkoak diren zerbitzu eta prestazioak ematean maila homogeneoak bermatzeko, eta, hori guztia, foru-aldundiekin eta udalekin koordinatzeko duen eskumena erabiliz”. Artikulu horrek, gainera, Eusko Jaurlaritzari esleitzen dio “**Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema***

*administraciones públicas vascas”.* Por otra, el Mapa contempla “*la constitución, antes del 31/12/2015 mediante acuerdo del Consejo Vasco de Finanzas Públicas, según lo previsto a tal efecto en la disposición adicional segunda del Decreto de Cartera, de una fórmula de colaboración financiera (de un “fondo”) para el despliegue del SVSS, a fin de contribuir, de manera especial, al desarrollo del modelo comunitario y la atención primaria”.*

Dada la relevancia de la **coordinación y planificación conjunta** de cara al funcionamiento de los servicios sociales municipales, es importante también señalar las disposiciones de la Ley y el Mapa de servicios sociales con relación a los cauces de coordinación en el ámbito de los servicios sociales, así como a la promoción de fórmulas de mancomunización y gestión compartida de los diferentes servicios. En ese sentido, la Ley de Servicios Sociales establece las siguientes disposiciones:

- En el artículo 40, la Ley atribuye al **Gobierno Vasco** la competencia sobre “*la planificación general de los servicios sociales en el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, tanto en el marco del Plan Estratégico de servicios sociales como en el marco de los planes sectoriales y especiales que, en su caso, se elaboren, al objeto de determinar prioridades y garantizar niveles homogéneos en la provisión de los servicios y prestaciones necesarios para el ejercicio efectivo de los derechos regulados en la presente ley en todo el territorio autonómico y ello en el ejercicio de su competencia de coordinación sobre las diputaciones forales y los ayuntamientos”.* Este mismo artículo atribuye, además, al Gobierno Vasco



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA

## Sesiones de órganos de gobierno colegiados Acuerdo de Pleno

### Kide anitzeko gobernu-organoen bilerak Udalbatzarraren erabakia

AYT/PLE/13/2017

ORG111150

Código de validación/*Balidazio kodea*  
2E3X5F5Z4R0F470H0W9V



**koordinatzeko ardura, helburu honekin: Euskadiko lurralde osoan prestazio eta zerbitzuen garapen orekatua (prestazio eta zerbitzu horiek lortzeko aukeretan homogeneotasuna bermatuko duena) eta gizarte-zerbitzuen beren eta gizarte-ongizatean zuzeneko eragina duten sistema eta politiken artean (batez ere osasunaren, hezkuntzaren, etxebizitzaren, enpleguaren, diru-sarreraren bermearen eta gizarteratzearen arloko zerbitzuekin) koordinatzeko mekanismoen ezarpena bermatzea, bere eskumeneko lurralde-eremuan”.**

- **Era berean, 41. artikulua foru-aldundiei esleitzen die, beraien eskumenekoak diren zerbitzuak planifikatu eta hornitzeko eskumenaz gain, “hurbiltasun geografikoaren printzipioari eta baliabideen erabilera eraginkorraren printzipioari jarraikiz gizarte-zerbitzuak emateko, mankomunitateen edo beste udal-elkarte batzuen eraketa sustatu eta bultzatzeko eskumena”.**
- **Gizarte Zerbitzuen Mapak udalei eta aldundiei esleitzen die beraien eskumeneko zerbitzuak planifikatzeko ardura, Mapan bertan adierazitako irizpideei jarraikiz. Horretarako, erakunde horiek egindako plangintzak haien ardurapeko lurraldeko eremu jakin batzuetan banatuko ditu beraien eskumeneko zentroak, legearen 36.5 artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Eremu horiek geografikoki**

**“la coordinación general del Sistema Vasco de Servicios Sociales con el fin de garantizar, en todo el territorio del País Vasco, un desarrollo equilibrado de las prestaciones y servicios que garantice la homogeneidad en las oportunidades de acceso a los mismos, así como el establecimiento de mecanismos de coordinación entre los servicios sociales y sistemas y políticas públicas con incidencia directa en el bienestar social, en particular con los servicios de salud, de educación, de vivienda, de empleo y de garantía de ingresos e inclusión social, en el ámbito territorial de su competencia”.**

- **A su vez, el artículo 41 atribuye a las diputaciones forales, además de la competencia respecto a la planificación y la provisión de los servicios de su competencia, competencias de “promoción y fomento de la constitución de mancomunidades o de otras agrupaciones municipales para la prestación de servicios sociales de acuerdo con el principio de proximidad geográfica y de eficiencia en la utilización de los recursos”.**
- **El Mapa de servicios sociales atribuye a las diputaciones y a los ayuntamientos la responsabilidad de planificar los servicios de su competencia, de acuerdo a los criterios señalados en el propio Mapa. Para ello, la planificación realizada por estas entidades distribuirá los centros de su competencia en zonas concretas del territorio del que es responsable (delimitaciones geográficas que las**

*zehatz-mehatz identifikatu eta zerbitzuak ezartzeko biztanleria-irizpiderik egokienak kontuan hartuta zehaztuko dira (36.4 artikulua). Mapak berak adierazten duenez, "foru-aldundiak buru izan daitezke, tokiko erakundeekin lankidetzan eta erakunde bakoitzaren autonomia errespetatuta, lurralde historikoko Gizarte Zerbitzuen Mapa egiteko prozesuan. Mapa horretan, foru-nahiz udal-eskumeneko baliabideak sartu behar dira, eta zentroak lurraldean hedatzeko proposamena ere egin beharko da".*

*Ildo horretan, Mapa autonomikoaren testuak gaineratzen duenez, "lurralde historikoko gizarte-zerbitzuen Mapan, foru-eskumeneko baliabideak eta udal-eskumeneko baliabideak txertatuko dira". Mapa lantzeko, "aurreikusi da udalek eta foru-aldundiek lurralde historiko bakoitzeko zerbitzu eta prestazioen sarea antolatzen (plangintza, kudeaketa eta ebaluazioa egiten) laguntzea, betiere erakunde bakoitzaren autonomia errespetatuta, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen Mapari erantsiko zaion mapa bat ezarriko dute elkarren arteko adostasunez. Foru-aldundi bakoitzak sarea planifikatzeko eta Mapa eta udalei zerbitzuen sarea hedatzen lagunduko dieten beste prozesu batzuk egiteko prozesua bideratuko du, hala nola mankomunitateen edo beste udal-elkarte batzuen eraketa".*

administraciones forales y locales tienen la competencia de adoptar, según lo previsto en el artículo 36.5 de la ley) identificadas geográficamente con precisión y definidas atendiendo a los criterios poblacionales considerados más idóneos para implantar los servicios (artículo 36.4). El Mapa señala en ese sentido que *"las Diputaciones Forales, en colaboración con los Entes locales y desde el respeto a la autonomía de cada institución, podrán liderar la elaboración del Mapa de servicios sociales del Territorio Histórico que incluya los recursos tanto de competencia foral como municipal y realice un planteamiento respecto al despliegue de los centros en el territorio"*.

El texto del Mapa autonómico añade en ese sentido que **"el Mapa de servicios sociales del Territorio Histórico incluirá los recursos de competencia foral junto a los recursos de competencia municipal"**. Para su elaboración, *"se prevé que los ayuntamientos y las Diputaciones Forales colaboren en la organización (planificación, gestión y evaluación) de la red de servicios y prestaciones en cada Territorio Histórico, desde el respeto a la autonomía de cada institución, y lleguen a establecer de común acuerdo un mapa que se anexaría al Mapa de Servicios Sociales de la Comunidad Autónoma de Euskadi. La Diputación Foral respectiva facilitaría el proceso de planificación de la red y la elaboración del Mapa e incluso otros procesos que puedan servir de ayuda a los ayuntamientos para desplegar la red de servicios, como la constitución de mancomunidades u otras agrupaciones municipales"*.



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA

## Sesiones de órganos de gobierno colegiados Acuerdo de Pleno

### Kide anitzeko gobernu-organoen bilerak Udalbatzarraren erabakia

AYT/PLE/13/2017

ORG111150

Código de validación/*Balidazio kodea*  
2E3X5F5Z4R0F470H0W9V



*Baliabideen kudeaketa edo hornidura partekaturako aukerei dagokienez, Gizarte Zerbitzuen Legeak hau dio udalei buruz: "Ardurapean dituzten gizarte-zerbitzuak hobeto eskaintze aldera hala egin behar dutela uste badute, udalek elkartzeko aukera ere badute. Halakoetan, udalek sortzen duten antolakundearen eskuetan utziko dituzte lege honen bidez jaso behar dituzten eskumenak"* (28.2 artikulua). Zorroari buruzko Dekretuak ezartzen duenez, "kudeaketa publikoaren arreta, efikazia eta eraginkortasuna hobetzeko asmoz, beren eskumeneko zerbitzuak ematea agindu ahal izango dute euskal administrazio publikoek, ordenamendu juridikoan aurreikusitako tresnak erabiliz" (3.2 artikulua).

*Zorroari buruzko Dekretuak baliabideak dituzten eta baliabiderik ez duten udalerrien artean zehaztu beharreko konpentsazio ekonomikoa ezartzen du 13. artikuluan. Artikulu horren lehen paragrafoan adierazten denez, "Euskal administrazio publikoek zerbitzuak lortzeko eta zerbitzuetan jarraitzeko baldintzak malgutu ahal izango dituzte, beren kabuz edo beraien arteko akordioen bitartez; akordio horiek lortuz gero, konpentsazio ekonomikoa ezarri beharko da, baldintzak malgutu zaizkion zerbitzuaren titularra den administrazioaren alde".*

*Konpentsazio orokorra Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren 4.5.3 ekintzan dago aurreikusita. Hauxe du helburu: toki-erakunde batek beste toki-erakunde baten titulartasunpean dagoen edo beste toki-erakunde batek kudeatzen duen baliabide bat erabiltzeko aukera bermatzea.*

Con relación a las posibilidades de gestión o provisión compartida de los recursos, la Ley de Servicios Sociales señala, en referencia a los ayuntamientos, que "cuando lo estimen oportuno para garantizar la mejor prestación de los servicios sociales de su competencia, los ayuntamientos podrán agruparse y encomendar a la entidad organizativa resultante de dicha agrupación el ejercicio de las competencias que les son atribuidas en la presente ley" (artículo 28.2). El Decreto de Cartera establece que "con el fin de mejorar la atención, la eficacia y la eficiencia de la gestión pública, las administraciones públicas vascas podrán encomendar la prestación de los servicios de su competencia mediante los instrumentos previstos en el ordenamiento jurídico" (artículo 3.2).

El Decreto de Cartera establece la compensación económica que debería producirse entre los municipios que disponen de recursos y los que no, en el artículo 13. En el primer párrafo de ese artículo, se dice que "las administraciones públicas vascas, por sí mismas o mediante acuerdos entre sí, podrán flexibilizar los requisitos de acceso y permanencia en los servicios, estableciendo en dichos acuerdos, si se alcanzan, la oportuna compensación económica a favor de la administración titular del servicio cuyas condiciones se han flexibilizado".

La compensación general está prevista en la acción 4.5.3 del Plan Estratégico de Servicios Sociales, cuyo objetivo es el establecimiento de criterios y mecanismos de compensación económica para que un ente local pueda garantizar el acceso a un centro en un recurso de titularidad de otro ente local o gestionado por otro ente local.

*Azkenik, Gizarte Zerbitzuen Mapa aztertzean adierazi dugunez, Zorroari buruzko Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriak hau ezartzen du: "Dekretu honetako prestazio eta zerbitzu berriak edo gutxi samar garatutakoak emateko finantzaketa egokia bermatzeko, administrazio publiko eskudunek, Finantza Publikoen Euskal Kontseiluaren baitan, eraginkorrenak direla deritzen finantza-lankidetzako formulak adostuko dituzte, 2015eko abenduaren 31 baino lehen, betiere Gizarte Zerbitzuei buruzko 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 56.artikuluaren eta hirugarren xedapen iragankorrean aurreikusitakoaren arabera eta haietan aurreikusitakoa garatzeko".*

## **2. Bizkaiko Gizarte Zerbitzuen Mapa**

*2016-2019 aldiko EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoak jasotzen duenez:*

- Legearen eskumen-araubidean (41. eta 42. artikuluetan eta, batik bat, bi artikuluen bigarren zenbakian) aurreikusitakoari jarraikiz, beren eskumenerako zerbitzu eta prestazio ekonomikoak hedatzeko plangintza egingo dute foru-aldundiek eta tokiko erakundeek.*
- Plangintza horretan, EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan eta Mapan xedatutako irizpide orokorrak hartu beharko dituzte aintzat: biztanleriari buruzko hedapen-irizpideak (35.4 artikulua); gutxienerako estaldura-mailak eta adierazle sintetikoa (36.4 artikulua);*

Finalmente, como ya se ha señalado al analizar el Mapa de Servicios Sociales, la disposición adicional segunda del Decreto de Cartera establece que *"al objeto de garantizar la adecuada financiación para la provisión de las prestaciones y los servicios nuevos o escasamente desarrollados contenidos en el presente Decreto y con anterioridad al 31 de diciembre de 2015, las Administraciones públicas competentes acordarán, en el seno del Consejo Vasco de Finanzas Públicas, aquellas fórmulas de colaboración financiera que se entiendan más eficaces de conformidad y en desarrollo de lo previsto en el artículo 56 y disposición transitoria tercera de la Ley de Servicios Sociales, de 5 de diciembre, de servicios sociales"*.

## **2. Mapa de Servicios Sociales de Bizkaia**

El Plan Estratégico de Servicios Sociales de la CAPV 2016-2019 recoge que:

- Las Diputaciones Forales y los Entes locales, de acuerdo con lo previsto en el régimen competencial de la ley (artículos 41 y 42, y en particular en el apartado segundo de ambos artículos) realizarán una planificación del despliegue de los servicios y prestaciones económicas de su competencia.
- En dicha planificación deberán tener en cuenta los criterios generales establecidos en el Plan estratégico y el Mapa de Servicios Sociales de la CAPV: criterios poblacionales de despliegue (art.35.4); coberturas mínimas e indicador sintético



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA

## Sesiones de órganos de gobierno colegiados Acuerdo de Pleno

### Kide anitzeko gobernu-organoen bilerak Udalbatzarraren erabakia

AYT/PLE/13/2017

ORG111150

Código de validación/Balidazio kodea  
2E3X5F5Z4R0F470H0W9V



*Katalogoan zehazten diren zerbitzuak ezartze aldera, biztanleriari dagozkion irizpiderik egokienak (36.1, 2 eta 3 artikulua).*

- *Foru-aldundiak, tokiko erakundeekin lankidetzan eta erakunde bakoitzaren autonomia errespetatuta, buru izan daitezke Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Mapa egiteko prozesuan. Mapa horretan, foru-nahiz udal-eskumeneko baliabideak sartu behar dira, eta zentroak lurraldean hedatzeko proposamena ere egin beharko da”.*
- *Erakunde bakoitzaren plangintza eta, dagokionean, lurralde historikoko mapak eranskina gisa txertatuko dira EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan.*

*Testuinguru horretan, helburua da Bizkaiko Gizarte Zerbitzuen Mapa EAEko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan eta Mapan zehaztutako irizpide orokorren (hots, hedapen eta estalduren inguruko biztanleria-irizpideen) esparruan lantzea.*

- *Bizkaiko gizarte-zerbitzuen lurralde-antolamendu egoki baterako parametroak zehaztea eta garatu beharreko zerbitzuak dagokionean kokatuko diren mugapen geografikoak ezartzea.*
- *Egungo egoeraren estimazioa eta etorkizunerako proiektzioa egitea, EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapan*

(art.36.4); criterios poblacionales considerados más idóneos para la implantación de los diferentes servicios del Catálogo (art.36.1, 2 y 3).

- Las Diputaciones Forales, en colaboración con los Entes locales y desde el respeto a la autonomía de cada institución, podrán liderar la elaboración del Mapa de Servicios Sociales del Territorio Histórico que incluya los recursos tanto de competencia foral como municipal y realice un planteamiento respecto al despliegue de los centros en el territorio.
- La planificación de cada institución y/o, en su caso, los mapas a nivel del Territorio Histórico se integrarán como anexo en el Plan estratégico de Servicios Sociales de la CAPV.

En este contexto, el objetivo es la elaboración del Mapa de Servicios Sociales de Bizkaia en el marco de los criterios generales definidos en el Plan estratégico y el Mapa de Servicios Sociales de la CAPV (criterios poblacionales de despliegue y coberturas)

- Definición de los parámetros para una adecuada ordenación territorial de los servicios sociales en Bizkaia, estableciendo las delimitaciones geográficas en la que se ubicarán, en su caso, servicios a desarrollar.
- Estimación de la situación actual y proyección a futuro de acuerdo a los objetivos de desarrollo de

*estaldurei dagokienez ezarritako zerbitzu eta prestazioen garapenaren inguruko helburuei jarraikiz.*

